



Urretxu udala



ZUMARRAGAKO  
UDALA

**PUBLIZITATE GABEKO  
PROZEDURA NEGOZIATUAREN  
BIDEZ ZUMARRAGA ETA  
URRETXUKO "UDALEKU  
IREKIAK", ZERBITZU  
PRESTAZIOA ESLEITZEKO  
BALDINTZA TEKNIKOEN  
PLEGUA.**

**PLIEGO DE CONDICIONES  
TECNICAS PARA LA ADJUDICACION  
DEL SERVICIO DE COLONIAS  
ABIERTAS DE URRETXU Y  
ZUMARRAGA, MEDIANTE  
PROCEDIMIENTO NEGOCIADO SIN  
PUBLICIDAD**

Enpresa adjudikazio-hartzailearen betebeharrak nagusiak, honako hauek izango dira, besteak beste:

- Udaleku Irekietako programazioari dagokion lan-proiektua aurkeztea.
- Programatutako ekintzen dinamizazioa eta koordinazioa.
- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren langileak kontratatzea, plegu honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuz.
- Lokalak zabaldu, itxi eta garbitzea, materialak zaintzea eta ordena mantentzea.
- Zerbitzu-prestazioa bukatzen denean, dagokion memoria aurkeztea.
- Aurrera eraman beharreko lana Urretxu eta Zumarragako udalen menpe eta berauekin koordinatuz gauzatuko da.
- Udal organo erabakitzaileek zehaztutako beste edozein funtzio, beti ere zerbitzuarekin lotura dutenean.

Las obligaciones principales de la empresa adjudicataria serán, entre otras:

- Presentación del proyecto correspondiente a la programación de Colonias Abiertas.
- Dinamización y coordinación de las actividades programadas.
- Contratación de trabajadores/as necesarios para la prestación del servicio, certificando que cumplen las condiciones establecidas en este pliego.
- Apertura, cierre y limpieza de locales, cuidado de materiales y mantenimiento del orden.
- Presentación de la memoria correspondiente a la finalización de la prestación del servicio.
- El trabajo a realizar se llevará a cabo bajo la coordinación de los ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga.
- Cualquier otra función establecida por los órganos decisorios municipales, relacionada con el servicio.



Urretxuko udala



ZUMARRAGAKO  
UDALA

#### Baldintza bereziak:

- Haur kopurua: 300 ume, gehienez.
- Haurren adina: 6-11 urte bitartean izango da, hau da, 2016 urtean: 2005 eta 2010 bitartean jaioak. 2017 urtean: 2006 eta 2011 bitartean jaioak
- Enpresak begirale bat kontratatu beharko du 10 hurreko.
- Zerbitzua behar den bezala eskaintzeko beharrezkoa den euskara-maila izatea, ahoz zein idatziz.
- Udaleku ireki hauen helburua: aisialdi garaian elkarkidetzan, berdintasunean eta ekologian heztea euskaraz.

#### BEGIRALEEN EZAUGARRIAK:

- 16 urte beteta izatea eta 35 urte baino gehiago ez izatea.
- Bere eginkizuna behar bezala betetzeko euskara maila egokia, ahoz zein idatziz.
- Koordinatzaile nagusiak hezitzaile titulua izan beharko du derrigorre eta hartaz gain, koordinatzaile gehiago balego, gutxienez erdie begirale titulua izan beharko du. Baldintza hauek ez betetzeko erabakia arrazoitu egin beharko du enpresa-esleipendunak, eta onartu egin beharko du Epaimahaiak.

#### Condiciones especiales:

- Número de participantes: 300 niños/as máximo.
- Edad de los/as participantes: 6 - 11 años, esto es:  
Año 2016: nacidos/as entre 2005 y 2010  
Año 2017: nacidos/as entre 2006 y 2011
- La empresa deberá contratar un monitor/a por cada 10 participantes.
- Nivel de euskera necesario, oral y escrito, para la prestación de un adecuado servicio.
- Objetivo de las colonias abiertas: educarles en convivencia, igualdad y ecología durante el tiempo libre, y en euskera.

#### CARACTERÍSTICAS DE LOS/LAS MONITORES

- Tener cumplidos 16 años y no más de 35 años.
- Nivel de euskera adecuado para cumplir con su tarea, tanto oral como por escrito.
- El/la coordinador/a general deberá tener obligatoriamente el título de educador/a; además, si hubiera más coordinadores/as, al menos la mitad deberán poseer la titulación de monitor/a. El no cumplimiento de dichas condiciones deberá ser razonado por la empresa adjudicataria, y deberá ser aceptado por el Tribunal.



Urretxu udala



ZUMARRAGAKO  
UDALA

Begiraleak aukeratzeko prozedura:  
Lanpostuak betetzeko honako  
prozedura erabiliko da:

- Lanpostuen %60 betetzeko begirale titulua eskatuko zaien eta horien artean Urretxun eta Zumarragan erroldatutakoek izango dute lehentasuna, gero Mankomunitatekoek (Ezki-Itsaso eta Legazpi) eta gero eskualdekoek (Goierri eskualdekoek).
- Lanpostuen beste %40 enpresak berak aukeratu ahal izango ditu berak egoki jotak irizpideen arabera, beti ere goiz aipatutako lehen baldintza beteaz.
- Zerbitzu honi atxikitako pertsonen lan kontratua lanean hasi aurretik sinatu beharko dute, eta bertan garbi geratuko dira lan baldintzak.

Procedimiento para la selección de monitores/as: el procedimiento utilizado para la provisión de puestos de trabajo será el siguiente:

- Se exigirá el título de monitor/a para cubrir el 60% de los puestos de trabajo, teniendo prioridad para ello los/as empadronados en Urretxu y Zumarraga, después los/as de la Mancomunidad (Ezki-Itsaso y Legazpi), y después los/as de la comarca (comarca del Goierri).
- El 40% restante de los puestos de trabajo podrá ser seleccionado por la empresa, según los criterios que estime adecuados, siempre y cuando cumplan las condiciones anteriormente indicadas.
- Las personas adscritas a este servicio deberán firmar el contrato laboral antes del inicio del trabajo, debiendo estar claramente recogidas las condiciones laborales.

#### BALDINTZA EKONOMIKOAK

**2016 urtean:** Kontratuaren prezioa HOGEITA BAT MILA ZAZPIREHUN ETA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (21.712,96 €) izango da + BEZ . Prezio horrekin gehienez 150 haurrentzako udalekuak antolatu beharko ditu enpresak, eta hortik gora, 300ko haur kopurura iritsi bitartean, izena ematen duten hamar

#### CONDICIONES ECONOMICAS

**Año 2016:** El precio del contrato será de VEINTIUN MIL SETECIENTOS DOCE EUROS CON NOVENTA Y SEIS CENTIMOS (21.712,96 €) + IVA. Bajo este precio la empresa deberá organizar colonias para un máximo de 150 niños/as, y de ahí en adelante, hasta un número de 300 niños/as, por cada 10 participantes inscritos, aumentará el



Urretxuko udala



ZUMARRAGAKO  
UDALA

hurreko gehienez 921,48 euro + BEZ gehiago handituko da kontratuaren prezioa.

Bestalde, taldean arreta berezia behar duen haurrik balego, gehienez 921,48 euro gehiago handituko da kontratuaren prezioa, haur horrentzako aparteko begiralea kontratatzeak sortuko lituzkeen gastuei aurre egiteko.

Udalekuetako ekintzak burutzeko irisgarritasun dela eta behar bereziak dituzten haurrei zerbitzu bezala taxia jarriko zaie (egunero udalekuetara heltzea kanpo geratzen da) eta honen kostua prezioari gehituko zaio.

**2017 urtean** baldintza ekonomikoak mantenduko dira.

#### Finantziazioa eta ordaintzeko era

Kontratatuak Urretxu eta Zumarragako Udalak izanik bi faktura aurkeztu beharko dira bata Urretxuko Udalari zuzendua eta bestea Zumarragako Udalari zuzendua. Prezioaren banaketa herri bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera egingo da; 2016an Urretxuko Udalari % 41,05a eta Zumarragako Udalari %58,95a.

Kontratuaren prezioaren ordainketa, Udal bakoitzari dagozkion bi fakturak aurkeztuko dira, bat ekainean (%60) eta beste bat uztailan (%40).

precio del contrato como máximo 921,48 € + IVA.

Por otra parte, si hubiera participantes con necesidad de atención especial, aumentará el precio del contrato como máximo 921,48 €, para hacer frente a los gastos de contratación de otro monitor/a que atienda a esa necesidad especial.

Se dispondrá de servicio de taxi para los/as participantes con necesidades especiales, y que por motivos de accesibilidad a las actividades lo necesiten, aumentando este coste al precio de contrato. (No se incluye el acceso diario a las colonias).

Se mantendrán las condiciones económicas durante el **año 2017**.

#### Financiación y forma de pago

Siendo los contratantes los ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga, se presentarán dos facturas: una al Ayuntamiento de Urretxu y otra al Ayuntamiento de Zumarraga. El reparto del precio se realizará conforme al número de habitantes de cada municipio; para el año 2016: Ayuntamiento de Urretxu 41,05%, y Ayuntamiento de Zumarraga 58,95%.

Para el abono del precio de contrato se presentarán dos facturas a cada Ayuntamiento; 60% en junio y 40% en julio.